

Lucronia

TXILLARDEGI



PRENTSAK eta Telebistak, jakina denez, ikaragarriko indarra dute gertakarien irakurketa eta ulerkeria moldatzeko.

Aste hauetan, adibidez, nazio-arazo batzuez herri xehea ere jabetzea lortu dute. Nork ez daki, esate baterako, Eslobakiak bere Askatasuna lortu duenik? Nork ez daki, bide beretik, Palestina, Kosovo, Quebec helburu horretarantz abiatuak direnik?

Lucronia-ko-kasoa, aldiz, oso tristea delako agian, aipatu ere ez da egiten. Hurren herririk mendetan barena borroka larza eraman ondoren, bertako agintari politikoek txaketa aldatu (galtzontziok ere bai, egia esateko) eta gatazkan hildako gerrarian hilerdian pixegin.

Agintea PNLSEA alderdiak hartu du (alegia, Partido Nacionalista Lucrativo Sociedad Anónima delakoak); eta honek, 'bertakoen oitira garbiyen' izanean, eta Atúchez delako baten zuzendaritzapean, Lucronia zoritxarrekoa Keltiberopolis-ko sukurtsal cantabro-nortea, fidel eta otzana bihurtzea erabaki du.

Zelebrenea eskulie buruzko erabakia izan da. «Nork du Lucronian iskuririk erabiltzeko eskubidea?», galdetu dute bahoquentzan. Eta Atúchez-en eta Aita Farsallus-en erantzuna ez da luzatu: «Bi erakunde ez bestek izango dute aurrerakoan eskubide hori: 1) Keltiberopolis-ko harradak eta politziak; 2) Lucroniako Zi-paichanchak. Eta puntu. Beste inorrok ere ez».

1942an Frantzia hau legeztatu baitzuten: «En France auront le droit au port et utilisation d'armes exclusivement les membres de la Wehrmacht et ceux de la Gestapo», ahobatez entzungo zen bazterretan: «Voilà un gouvernement callabo!».

Lucronian ez. Agintarien esanetan, erabakia normala da. Lucronia-ren Askatasunerako bide malkartsuan, iskulien eskulibisa indar okupatzaileek eta 'collabo-ek' izatea, fidetza da.

Hori ikusita, Europako politologoek, ahobatez, oso desbideraturik ikusten dute Lucroniako agintaritzan, salduta zehazkiago esateko.

Baina PNLSEA-aren erantzuna hauxe da: «Ez kasorik egin. Zer dakite horiek politikaz?».

HIEZ

INAKI SEGUROLA



EZ dakit xuxen noizdani-koa den, gure mundua ia azken beltzak joa utzi duen sindrome lazgarri hori. Oso aspaldikoa ere ez dirudi HIEZ-duen ugaltzeak; mende-erdia baino askoz gehiago ez da izango izango egunkari bat lehen aldikoz begiztatu zuen Tolosa-aldeko baserritar bati Aita Mokoroaren berari harririk honako galde hauxe aidi ziotenetik: «Baina ba al da munduan hoinbeste egi?».

«Dena dakizue eta ezer ez dakizue»: gure aita jaunak anaiari eta bioi esan horixe hainbesietan errepikatuaren poderioz jabetu nintzen HIEZak kutsatua nengoela; egunak, asteak, urteak, hamarkadak, mendeak eta Historia guziki asmatutako 'berriak' irenisi arteko onik ez nuela; gehiengo (in)formatu bezain erregiduen partaide bihurtzeko martxa neramala; ezin-biziaren etsipen beltza xuritzeko goizero Historiarekin gosaldut beharra neukala baitetzpada («ni ez naiz bizi, baina badakit munduko herri: beraz, bizi baintz bezalaxe»). Argialdiak ere izaten nituen tarteak: hasi nintzen sentitzen irakurri aurretik baino are hutsago eta minago uzten nindutela Estatuaren laguntza, publizitatez eta fedez gizendutako paper pottolo haiek, informazioz bete ahalean arrazoiz eta bizipozez arnunt eskastua. Gaur den egunean, batzutan hala uste badut ere, ez nuke esango zeharo sendatua nagoenik; hain da gaitza HIEZaren biru ala hori errendituz!

Gogoan dut gallego kaskagorog batek nola esplikatu zigun behin trenean lagun batzuei zer zen harentzat egunkaria: «o papel das duas verdades: a feita e o preciso». Badira irakurri eta deus ulertzen ez dutenak ere, hau da, deus ulertzen ez dutela esatera auzartzen diren giza-emakume argi eta bihotz-garbi banaka batzuk. Gero eta gutxiago, damurik, horrelako salbuespen miragarriak. Bien bitartean, piura negargarria darama munduan HIEZdunak: Hainbeste Informazioekin Erabat Zozotua.

HEMEROTEKA

● egin

Bosgarren «by-passa»

Atutxa, zapatagile eta txanbolin gisa hasi zena, azkenean ferriako pailazo txarra bihurtu da. Bere gisako burugabe batek bakarrik planteaz dezake bost mila txosten komertzial eskatu ditugula eta horien erabilera zuhurra egin ote dugun. Gixon horrek inolako inteligentzia izpirik ez duenez, bere entsefalograma lauk eragotzi egien dio jakitea ugariak direla hasien diren ikerketak eta, kanpora begira gauza guzietei amaiera arrakatsua eman nahi baitiete berarekin eta bere *ekinza* kide zoritxarrekoekin gertatzen ez den bezala, gehienak ikertu direnengan inolako iruzur aztararik aurkitu gabe bakutzen direla. Bide batez, nork esan zion Atutxari bost mila txosten komertzial egiteko agindu genuela? Izan ere, bera al da «Egin-en» informazio laido-garriek ukitutako enklarte-fantasmagorikoaren sortzaileetako bat? Baina Atutxa leloa denez, ez daki Incesarekin batera egindako gure lanen gainean ditugun egile eskubideak ez direla bereak, baizik eta Xa-


bier Arzalluzek aurrez iragarrita zeuden Antiguako batzokia inauguratzeko ekitaldian txosten komertzialen milioika pezeta gastatzen ditugula esan zuenean.

● DEIA

Goikoetxearen aldeko hiletatik 'Egin-en' miaketara

Nik ere uste dut 'Egin-ek' aurrera jarraituko duela, eta hori ona izango da denontzat, batez ere hilabeteotan gertatu diren erretarik ondorioak ateratzen baditu. Eta gertatutakoa bere ikerketa taldearen lanek behin eta berriro salatu zituzten bi pertsona ETAk *exekutatu* dituela izan da.

Atentzioa ematen dit 'Egin' jo eta botatzeko kanpaina' dela eta entzun ditudan salaketa ugarien artean, inori ez bururatzeko esateak egunkari horretako ikerketaileen adierazpen eta informazio askatasunaren etsairik handiena ETA dela, bere atentatuak medio eraso guzti-jomuga eta susmagarri bihurtu baititu; askatasuna kenduko baitie norbait kontra



PEPE REI

Amerikar arriskuari aurre egiteko babes bakarra: preserbatiboa. PLANTU / LE MONDE

beste salaketa kanpaina bat hasteko orduan. Horixe baino ez zitzaien gertatu benetako ekologista askori ETAK bere *arbitraia* iragarri zuenean Leitzarango auzian, eta entzuko zerbait gertatuko da agunen batean litoitzen esku hartzea erabakitzen badu. Elkarririen aldetik, meritu handiko ahalagien egiten ari baita gatazka zehazteko, jadanik esan duenaz gain beste zerbait espero nezakeen ildo horretatik.

EDITORIALA

● Diario 16

'Egin' ez da egunkari bat

Egunkaria gure *bizi inguru*-nea osatzen duten elementuetako bat da. Horik datorkio duen garrantzia. Uste dut Victor Hugo izan zela prensaren diametroa *zibilizazioaren diametro* bera dela esan zuena.

Diametro hori egunkaria zital batzuen eskutan goiteagatik laburtzen denean, *geure zirkunstantzia pobretuta gelditzen da*. Informazio askatasuna errespetatu egin behar da, lehenatasuna duen funtsezko eskubidea baita, baina zorrotz eta gupidarik gabe zigortu behar dira informatzeko lanbidean ezkatutako kriminalen zerbiztura dauden sakrilegoak.

'Egin-en' biziraupena defenditzea endekatu den jarrera da, handitasun liberaletik begiak irekita astoak eta oreinak nahastean dituenen erregleria ziteraino iritsi dena. 'Egin' ez da egunkari bat, *beste zerbait* baizik, orain justizi auzietegien kalifikazio juridiko-penalaren zain dagoena.

SECONDAT

ZUZENDARIARI

Josu Iztuetari erantzunez

Azaroaren 10eko alean eta Josu Iztuetari sinatuta argitaratu zenuten artikulua dela eta, ohar batzuk egin beharrean nago.

Aipatu artikulutik kirol erakunde guztiok emakumea modu berean tratatzen dugun jdea ondoriozta daiteke, eta ez da horrela. Espainiako Triatloi Federazioak sortu zenetik oinarri zorrotzetan bat sariak banatzeko orduan gizonen arteko emakumezkoen arteko berdintasuna izan du. Bide hori ez da beti erraza izan eta hainbat lasterketatan sariak denontzat berdinko izan behar zutela eta irabazleak, emakumea edo gizona izanik ere, saria bereganatu behar zuela pentsatzen zuten antolatzaileak aurkitu ditugu. Baliagarria izan dadila adibide hori azaltzeko zer-nolako egoerak aurkitu

ditugun gizonzkoek eta emakumezkoek sari berdinko izan ditzaten egin behar izan dugun borrokan zehar. Duela hainbat urtetatik hona sari berdintasuna ohiko praktika da, eta horixe frogatu zuen Donostian korritu zen Triatloi Mundu Kopak, Maratoiko Mundu Kopak ez bezala sari berdinko banatu baitzituen. Argudio hori zenbaitetan baliarazi behar izan dugu, ez bazuten sarien zerrenda diskriminatzaile aldatzen lasterketa egiteko baimena kenduko zitzaizkien mehatxua eginez. Donibane-Lohizune/Donostia lasterketa ez zen inoiz Espainian sarietako emakumeentzako sariak txikiagoak izan balira, antolatzaileek nahi zuten bezala.

Egia da Gemikan printzipio hori ez zutela bete eta hori salatze eta aurre egiteko modukoa da. Lehenik eta behin, argi utzi nahi dut egoera hori ez dela sarritan gertatu,

ezta gutxiagorik ere; aitzitik, kasu bakana da. Bigarrenik, horren erantzuleak bilatu behar dira eta aurrenekoa, jakina, banaketa modu hori proposatzen duena da; bigarrena, hori onartu eta horrelako baldintza erregulategi baimena ematen duena; hirugarrena, eta honetan denok gure *mea culpa* adierazi behar dugu, 'gizarte osoa, gogoz edo gogorik gabe egoera hori normalizat jo eta gure partaidetza eta ematen diegun zabalpenaren bidez horrelako antolantzei gure laguntza ematen diegulako.

Josuri nire adostasuna agertu nahi diot bere artikuluan eduki orokorrari buruz eta jakin dezala ildo beretik borrokatzen ari garela.

ENRIQUE QUESADA VALDES

Espainiako Triatloi Batzorde Nazionalako lehendakaria Madril

GAIA JARRITA



EGUNKARIAK

3 urte

Utopiatzat hartzen genuen nahi hura nola kumplitu, baina ahalaginen ikusi denez milagroak eiten ditu. Askorik ezin zuela irauan nahiz ta batzuek sinistu, jada hirugarren urteurrena, ez al da nahiko meritu! Oraindik jaio berria zara eta horrela jarraitu.

OIHANE ENBEITA

Egunkaria

Batzorde: Parkeak: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



CJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALLAI

Kontseilari Ordezkarie: INAKI URKIA

Gerentee: FERMIN LAZARANO

Zuzendaria: MARTELO OTAMENDI

Zuzendariordeak: LUZBEN ETXEZARRKETA

Publizitate: MARI JOSE SARASA

Espainiako Publizitate: PUBLICITIAS

Captain Hays, 1, 2, 3, 28020 Madrid, ☎ 91 555 11 01 / Fax: 91 556 29 29

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industria-01-02 Pabisaok / 20160 Lasarte-Oria ☎ 37 15 45 / Fax: 36 54 93

Egoitza soziale, Publizitate eta Administrazio: Antso Jakutua, 16-1 / 20010 Donostia ☎ 46 90 22 / Fax: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. Leher / 01005 Gasteiz ☎ 23 38 72 / Fax: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Iritziak dorrea) / 31011 Iruña ☎ 17 80 78 79 / Fax: 17 80 77

Bizkaia: Zabaltzuri Eparantzua, 2-1. Leher / 48003 Bilbo ☎ 410 40 40 / Fax: 410 37 15

Lapurdia / Nafarroa Behere / Zuberoa: Pannecau, 14, 1 / 503 Posta Kutxatila, 64100 Baiona ☎ 59 59 35 75 / Fax: 59 25 75 11